BIZIGUNE PROGRAMA

alokabide

Getxoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Bizigune Programa udalerrian sustatzea adostu dute

Getxoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak (Alokabide sozietate publikoaren bidez) Bizigune Programa Getxoko udalerrian sustatzea adostu dute. Lurralde horretan etxebizitzaren eskaria altua da, eta, ondorioz, beharrezkotzat jotzen da alokairuko etxebizitza-parkea areagotzeko ahalegina egitea Bizigune Programaren bidez.

Neurri horren bidez helburu bikoitza lortu nahi da: alde batetik, etxebizitza lortzeko interesa duten erabiltzaileen beharrak asetu nahi dira, eta, bestetik, udalerriko etxebizitza hutsak erabili nahi dira.

Horregatik guztiagatik, zenbait hilabetetan zehar informazioa emateko ekintzak antolatu dira udaleko bitartekoen bidez, hala nola aldizkaria eta albistegiak.

Zertan datza Bizigune programa?

Bizigune Etxebizitza Hutsen Programaren helburua hutsik dauden etxebizitzak eskuratzea eta alokairu babestuaren bidez merkaturatzea da. Programa horren bidez, erabilera soziala eman nahi zaie hutsik dauden etxebizitzei, etxebizitza duin bat arrazoizko prezioan lortu ahal izan dadin. Beren baliabide ekonomikoekin merkatu librean sartzeko aukerarik ez duten pertsonei zuzenduta dago.

Hutsik dagoen etxebizitzaren jabeak Eusko Jaurlaritzaren ALOKABIDE Sozietate Publikoaren esku uzten du etxebizitza hori usufruktu-kontratu baten bidez, ezarritako zenbait bermeren truke. Aldi berean, ALOKABIDEk ETXEBIDE Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan izena eman duen eskatzaile bati esleituko dio etxebizitza (eskaera Getxoko udalerrian egin badu), eta bere diru-sarreren araberako alokairu bat ordainduko dio ALOKABIDEri.

Zer abantaila eskaintzen dizkio Bizigune programak etxebizitza baten jabeari?

Hutsik dagoen etxebizitza baduzu eta Alokabideren bidez alokatu nahi baduzu, honako berme hauek eskaintzen dizkizugu:

- Hutsik duzun etxebizitza alokatzeko egin beharreko kudeaketa guztiez arduratuko gara
- Alokairua eta errentamendua 6 urtez hilero kobratzeko bermea
- Etxebizitza egokitzeko eta erreformak egiteko laguntza
- Etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria lortzea
- Alokabidek etxebizitzaren egoerari buruzko txosten teknikoa egitea
- % 0ko intereseko aurrerakina eskatzeko aukera etxebizitzan beharrezkoak diren egokitzapenak eta erreformak egiteko
- Etxeko arrisku anitzeko aseguru baten kontratazioa, Alokabideren kontura
- Etxebizitza kontserbazio-egoera berean itzuliko dela bermatuko da, etxebizitzaren erabilera egokiaren ondoriozko higadura normala salbuetsita.

  o Bizigune programa arautzen duen araudian ezarritako estaldurak jasotzen dituen instalazioak, etxetresna elektrikoak eta altzariak kontserbazio-egoera berean itzuliko dira (etxebizitzaren erabilera egokiaren ondoriozko higadura normala salbuetsita)

  o Bizigune programa arautzen duen araudian bermatzen ez diren ondasun eta altzariak ez dira itzuli, konpondu edo aldatuko.

Zer baldintza bete behar dira etxebizitza bat Bizigune programan sartzeko?

a) Etxebizitza librea izatea (BOE edo babes ofizialekoa ez izatea)

b) Azken 3 hilabeteetan hutsik egotea

c) Kasu honetan, etxebizitza Getxoko udalerrian egotea.

d) Etxebizitzaren oinarrizko baldintza teknikoak:

- o Bizitzeko baldintzak betetzea
- o Itxura txukuna eta garbia izatea
- o Sukaldea eta komuna hornituta egotea eta funtzionamendu-egoera onean egotea
- o Elektrizitate-instalazio optimoa: sistema-elektrikoak indarrean dagoen araudia bete behar du
- o Berogailu-sistema

Etxebizitza Bizigune programan sartzeko urratsak

Behar duzun informazioa lortzeko eta eman beharreko urratsak ezagutzeko, **Udaletxera** joan zaitezke edo jarri zaitez Alokabiderekin harremanetan doako telefonoaren bidez: **900 251 251**.

1. Honako dokumentu hauek igorri beharko dituzu:

- Etxebizitzako jabe guztien NANaren fotokopia
- Jabetza-erregistroko ohar sinplea
- OHZren azkeneko ordainagiriaren fotokopia, katastro-zenbaki finkoa agertzen dena
- Ura, argia eta gasaren azkeneko fakturen fotokopia (aurretik eta atzetik)

2. Alokabideko teknikari bat zure etxebizitzara joango da dagokion txostena egiteko eta hauxe adierazteko:

- Etxebizitzaren eta altzarien egoera, bai eta programan sartzeko egokitzapenik egin behar den
- Alokabidek hilero ordaindu beharreko errentamenduaren zenbatekoa
- Kontratua amaitzean itzultzeko bermea duten instalazio, etxetresna elektriko eta altzarien inbentarioa

3. Baldintzak bete eta erabakia hartuz gero, dagokion kontratua sinatuko da, eta Alokabide etxebizitza bat behar duen familia bilatzeaz arduratuko da ahalik eta lasterren.

Gogoratu: edozein galdera izanez gero, jarri harremanetan ALOKABIDEREKIN 900 251 251 zenbakian edo joan zaitez zure udaletxera.